



Arartekoaren 2023R-1857-22 Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari gomendatzen zaio bete ditzala Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpenak eta sor ditzala informazio publikoaren sarbiderako eskubideari egoki erantzungo dioten unitateak, gardentasunean espezializatuak.

Aurrekariak

1. Arartekoak kexa bat onartu zuen izapidetzeko, non kexagileak adierazten baitzuen nahigabetuta zegoela, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ez zuelako ezer egiten Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen (aurrerantzean, IPSEB) ebazpenak betetzeko. Kexagileak, 2021eko azaroan, SARS-COV-2 birusaren kontrako txertaketa-kanpainari buruzko hainbat estatistika eta datu eskatu zituen, ordura arte eskuduna zen sailak egindakoak, eta, 2022ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren txostenak eskatu zituen, Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren hitzaurreak txostenok aipatzen baitzituen, nabarmentzeko datu zientifiko ugarik berresten dutela COVID ziurtagiriaren ezarpena, aisialdiko lokalak osasun publikorako babes-maila batekin irekitzeko neurri eraginkor gisara. Kexagilearen esanetan, administrazioak ez zien zehatz erantzun bere eskaerei, eskatu ez zituen datuak eman zizkion, eta, azkenik, ez zizkion eskatutako txostenak eman; hortaz, sarbiderako eskubidea aldarrikatzea erabaki zuen, eta, horri begira, zenbait erreklamazio aurkeztu zituen IPSEBn. Erakunde hori berariaz sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta toki-erakundeen parte diren administrazio publikoek eta sektore publikoko gainerako erakundeek gardentasuna kontrolatu zezaten.

2. Kexagileak kexan azaltzen duenez, IPSEBren aldeko ebazpenak jaso zituen (otsailaren 3ko 11/2022 Ebazpena, martxoaren 31ko 22/2022 Ebazpena eta martxoaren 31ko 23/2022 Ebazpena). Halaber, adierazi duenaren arabera, IPSEBk ez dauka bere ebazpenak betearazteko legezko bitartekorik, eta, sail horrek ebazpenok betetzeko kudeaketak egin baditu ere, ez du emaitzarik lortu. Hori dela-eta, administrazioaren jardunarekin ados ez dagoela esan du; batetik, ez dielako bere eskaerei erantzun egokirik eman, informazio publikoaren sarbiderako eskubideari dagokionez, eta, bestetik, ez dielako jaramonik egin IPSEBk bere eskubidearen alde emandako ebazpenei.

3. Azaldutakoak ikusirik, erakunde honek idazki bat bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, jakiteko administrazioari zerk eragotzi dion kexagilearen eskubideari (hots, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari) arreta ematea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari





buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak otsailaren 3ko 11/2022, 2022ko martxoaren 22ko 22/2022 eta 2022ko martxoaren 31ko onespren ebazpenen bidez emandako interpretazio-irizpidea kontuan hartuta.

4. Laguntza-eskaerari erantzuteko, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txosten bat sartu zen erakunde honen erregistrora. Txosten horretan azaltzen denez, kexagileak informazio publikoa eskuratzeko bi eskaera egin zituen, 2021eko azaroaren 12an bata, eta 2021eko azaroaren 16an bestea, eta 2021eko abenduaren 21ean jakinarazitako ebazpen baten bidez erantzun zioten kexagileari. Administrazioak adierazi du txostenari erantsi dizkiola bi ebazpenok, baina ez dira ageri erakunde honi bidalitako dokumentuen artean. Txostenaren arabera, kexagileak, 2022ko urtarrilaren 18an, informazioa eskuratzeko beste eskaera bat egin zuen sail horrek abenduaren 21ean emandako datuak ikusirik; izan ere, haren ustez, ez zizkioten eman eskatutako datu zehatzak. Berriro ere, sail horrek, 2022ko otsailaren 15eko Ebazpenaren bidez, eskatutako datetatik hurbilen zeuden datuak ematea erabaki zuela adierazi zion kexagileari; bada, dokumentu hori erantsi duela adierazi du administrazioak, baina ez dago erakunde honi entregatutakoen artean. Sailak onartu egin du Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak kexagilearen aldeko ebazpena eman zuela 2022ko otsailaren 16an; ebazpen horretan, interesdunari eskatutako informazioa eman ez ziotela eta emandakoak eskatutakoarekin bat egiten ez zuela adierazten zen. Administrazioak, idazkia amaitzeko, erakunde honek eskatu ez zizkion datuak ematen ditu, taula batean.

5. Aurrekoan oinarrituta, Arartekoak informazio osagarria eskatu zion, Osasun Sailaren erantzun-idazkian ez zitzaiolako zuzenean erantzun kexagilearen informazio publikoaren sarbiderako eskubideari erantzutea eragotzi zuten kausei buruzko galderari, IPSEBren aldeko ebazpenetan oinarrituta. Halaber, Arartekoari hasieran emandako erantzunean, COVID-19aren aurkako hirugarren txertoaren eraginkortasuna neurtze aldera otsailaren 18ra arte egindako analisiaren datuak jasotzen zituzten taulak ageri ziren, eta administrazioak arrazoi horixe alegatu zuen 2022ko urtarrilean datuak ez emateko; hau da, administrazioaren esanetan, artean ez zeuzkan kexagileak beste eskaera batean eskatutako datuak. Alabaina, IPSEBk beranduago eman zuen martxoaren 31ko aldeko ebazpena, eta, beraz, Arartekoak balioetsi zuen interesdunak esku artean eduki beharko lukeela eskatutako informazio publikoa. Era berean, Osasun Sailak igorritako erantzun-txostenean, ez zen ezer esaten Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren txostenei buruz: kexagileak txosten horietarako sarbidea eskatu zuen, baina ez zizkioten eman, IPSEBk aldeko ebazpena (22/2022 Ebazpena, martxoaren 31koa) eman arren, haren interes legitimoari dagokionez. Hala, honako hau galdetu genion administrazioari:





- Behar bezala eman zenizkion kexagileari Covid-19aren aurkako txertaketa-kanpainei buruz eskatu dituen datu zehatzak, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen 11/2022 Ebazpenaren 10. eta 11. oinarri juridikoen eta 23/2022 Ebazpenaren 9. oinarri juridikoen arabera.
- Zergatik ez zaizkion erantzun eta aurkeztu interesdunari Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren oinarri izan ziren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren txostenak. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, martxoaren 31ko 22/2022 Ebazpenaren bidez, txosten horiek interesdunari entregatzeko eskatu zuen.

6. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren erantzuna sartu zen erakunde honen erregistrora, txosten baten bidez; txostenean adierazten zenez, 2022ko abenduaren 1ean informazioa eman zioten kexagileari. Batetik, datuen taula batzuk eman zizkieten; halere, aztertu ondoren, 2022ko urtarrilean emandako berberak ematen dute, eta erakunde honi urrian emandakoen berdin-berdinak. Bestetik, justifikazio-memoria bat eman zioten, testua oinarritzeko erabilitako txostenak eta artikulak aipatzen dituen eta haietarako sarbidea ematen duena, orri-oinean ipinitako esteken bidez. Gainera, esteka elektronikoen bidez helarazitako txostenak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak emandakoak dira, Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren hitzaurreak aipatzen dituenak, non agerian jartzen baita aisialdiko lokalak osasun publikorako babes-maila batekin irekitzeko neurri eraginkorra dela COVID ziurtagiria ezartzea eta ziurtagiria berresten duten datu zientifiko ugari daudela.

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Gardentasuna jarduteko printzipio bat da, eta administrazio publikoek beren jardunean, antolaketan eta funtzionamenduan errespetatu behar dute, sektore publikoa erregulatzeko arauak ezarri moduan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen [3.1.c\) artikulua](#) ezartzen duenez, administrazio publikoek, beste printzipio batzuen artean, honako hau errespetatu behar dute beren jardunean eta harremanetan: *“Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea”*.





Gure lurralde-eremuan, Euskadiko Sektore Publikoaren 3/2022 Legeak ([63.i artikulua](#)) honela definitzen du gardentasuna, Euskadiko sektore publikoak funtzionatzeko eta herritarrekin harremanetan aritzeko printzipio modura:

“Gardentasuna: gardentasunez jardungo du, halako moduz, non herritarrek ezagutzea izango duten hartu diren erabakiei eta erabakion erantzuleei buruzko informazio garrantzitsua, bai eta erabakion deliberazio-prozesuei eta zerbitzuen antolaketari buruzkoa ere”.

Osasun-eremuan, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Legeak, osasun publikoan aritzeko printzipio orokorren artean ([3. artikulua](#)), eskudun administrazioek gardentasun-printzipioari heldu behar diotela jasotzen du f) apartatuan: *“Principio de transparencia. Las actuaciones de salud pública deberán ser transparentes. La información sobre las mismas deberá ser clara, sencilla y comprensible para el conjunto de los ciudadanos”.*

Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan, herritarrek administrazioaren artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidea dutela aitortzen da, administrazio-gardentasunaren printzipioaren adierazpen modura, Auzitegi Gorenaren 2000ko azaroaren 14ko epaiak nabarmendu bezala (Rec 4618/1996)⁴, eta printzipio horrek, beste batzuekin batera, “azken belaunaldiko eskubide” deiturikoetako baten edukia osatzen du; hain zuzen ere, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren [41. artikuluan](#) jasotzen den administrazio onerako eskubidearena.

Gardentasunaren, gobernu onaren eta administrazio onaren arteko lotura agerikoa da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 15. artikulua arabera.

“1. Gobernamentu ona sustatzeko eta gizarte zibilak parte hartuko duela bermatzeko, Batasuneko instituzioek, organoek eta organismoek irekitasunprintzipioa ahalik eta gehien errespetatuta jardungo dute”.

Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 2012ko apirilaren 30eko epaiak⁵ adierazten du administrazio onerako eskubidearen barruan sartzen dela herritarrek artxiboetara eta erregistroetara sartzeko aukera izatea eta, beraz, gardentasun-printzipiora lotuta dagoela: administrazio publikoak, hortaz, gardentasun-printzipioari heldu behar dio bere jardunean.

⁴ [ECLI:ES:TS:2000:8241](#)

⁵ [ECLI:ES:TS:2012:3243](#)





“(...) En el derecho a una buena administración se integra el derecho de acceso de los ciudadanos a los archivos y registros administrativos, derecho reconocido en el artículo 105.b. de la Constitución y que, al igual que el derecho de audiencia o la obligación de motivar las decisiones administrativas, como decíamos, integra el contenido del derecho a una buena administración, derecho de última generación. Proclamado en la Constitución - artículo 105.b.- el derecho de los ciudadanos a acceder a los archivos y registros administrativos, ese derecho es un instrumento para la transparencia, principio objetivo de actuación igualmente enunciado en el artículo 105.b. de la Constitución e insignia para legitimación de toda Administración Pública. Pues bien, para que sea efectivo el derecho de acceso de los ciudadanos a la documentación que se encuentra en poder de las Administraciones Públicas es necesario, desde luego, que la Administración sea profesional, objetiva, participativa y servicial, pero sobre todo es imprescindible que la Administración respete la Ley.

El derecho constitucional de acceso que enuncia el artículo 105.b. de la Constitución es un derecho subjetivo de los ciudadanos, derecho que estos pueden ejercer con limitaciones, en concreto con las previstas en la Constitución y con las establecidas por la Ley. Y ese precepto constitucional enuncia al propio tiempo un principio objetivo de actuación de toda Administración Pública, en concreto que la Administración ha de actuar, como ya veíamos antes, de acuerdo con los principio de transparencia y participación. (...)”.

Informazio publikoaren sarbiderako eskubidea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen [13. artikuluan](#) zabaldu zen, eta lege horrek informazio publikotzat jotzen du arauaren ezarpen-eremuan sartutako subjektuen batek daukan eta lanean egin nahiz lortu duen edozein eduki edo dokumentu, formatua eta euskarria edozein izanik ere.

Hala, artikulua horrek herritarrei aitortzen die informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, eskubidea garatzean, eremu subjektiboa eta eremu objektiboa bereizten ditu. Bada, [12. artikulua](#) oro har erregulatzen du eremu subjektiboa: *“Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan(...)”*, eta [13. artikulua](#) eremu objektiboa erregulatzen du, informazio publikoa honela definituz: erakunde behartuek dauzkaten eta lanean egin edo eskuratu dituzten dokumentu guztiek osatzen dute informazio publikoa, formatua eta euskarria edozein izanik ere.





2. Informazio publikoaren sarbiderako eskubidearen inguruko araudia eta doktrina azalduta, IPSEBk aurretik interpretatu du kexagilearen asmoaren eremu objektiboa. Erakunde hori gardentasuna kontrolatzeko organo espezifikoa da, eta Euskadiko administrazio publikoek informazio publikoa eskuratzearen arloan ematen dituzten ebazpen ezeztatzaileen, berariazkoen edo ustezkoen aurka –aukeran eta administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik– jartzen diren erreklamazioen berri edukitzeko sortu da.

Aurrekarietan esan bezala, kexagileak IPSEBra jo zuen, Osasun Sailak ez ziolako erantzun edo erantzunak nahikoak izan ez zirelako.

Horrenbestez, IPSEBren 2022ko otsailaren 3ko 11/2022 Ebazpenean, 2022ko martxoaren 31ko 22/2012 Ebazpenean eta 2022ko martxoaren 31ko 23/2012 Ebazpenean arrazoituta dira bai eskatutakoa eta eragindako administrazioak emandakoa alderatzeko lana eta bai, azken batean, kexagilearen eskaera legitimatzen duen interes publikoa.

IPSEBren irizpideak eta argudioak ez errepikatzearen, egoki ikusi dugu kexagileak erakunde honetan planteatu duen informazio publikoaren sarbiderako eskubidearen kontra Arartekoaren ustez egon litezkeen oinarritzko alderdiak laburbildu eta nabarmentzea.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da, ebazpen honen aurrekarietan azaldu moduan, eragindako administrazioak ez digula erantzun kexagilearen kexa arrazoituta zuten kontuei buruz; hau da, ez digu esan zerk eragotzi zuen interesdunaren informazio publikoaren sarbiderako eskubideari arreta ematea, IPSEBren ebazpenen arabera. Horren ordez, Arartekoak eskatu ez zituen dokumentuak eta datuak eman dizkigu.

Bigarrenik, kexagileak eskatutako datu zehatzei dagokienez, IPSEBren tesiarekin bat egiten dugu, zeinak 11/2022 Ebazpenean (10. eta 11. oinarri juridikoak) eta 23/2022 Ebazpenean (9. oinarri juridikoa) aipatzen diren alderdietan laburbildu baitaitezke; hau da, eskatutakoak eta emandakoak ez zuten denboran bat egiten, eta infektatzeko nahiz ospitaleratzeko arriskuari buruzko ehunekoak eta tasak eman zizkieten, ez pertsona-kopuruari buruzkoak. Kexagileari eta erakunde honi 2022ko urtarrilaren 17an emandako taula aztertu dugu, eta ikusi ez dela hildakoen guztizko kopurua eman; halaber, ez da datuok ez emateko arrazoirik eskaintzen, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera aplikatu daitezkeen sarbide-mugaketaren bidez.

Hirugarrenik, *"Justifikazio-memoria, jarduera zehatz batzuetan COVID pasaportea eskatzeari buruz Osasuneko sailburuak 2021eko azaroan emandako Aginduari*





buruzkoa” izeneko dokumentua bidali digu, aurretik kexagileari eta IPSEBri bidalitakoa, eta adierazi du dokumentu horren txosten eta artikuluetan oinarritu duela bere testua. Txosten horietarako estekak ere eman ditu, oin-oharretan, eta, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eman zituenak dira, non agerian jartzen baita COVID ziurtagiria ezartzea neurri eraginkorra dela aisialdiko lokalak osasun publikorako babes-maila batekin irekitzeko eta ziurtagiria berresten duten datu zientifiko ugari daudela. Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren hitzaurrean, txosten horiek aipatzen dira. Bada, beste administrazio publiko batzuek (hala nola, Osasun Ministerioak eta Europako nahiz nazioarteko beste gobernu eta erakunde batzuek) egindako datu, dokumentu eta txostenak dira, Interneteko atarietan argitaratuta daudenak. Halere, IPSEBk 22/2022 Ebazpenean (7. oinarri juridikoa) ondorioztatu zuenez, memoria horrek ez dauka zerikusirik kexagileak eskatutako txostenekin. Zentzu horretan, deigarria da memoriaren 7. oin-oharrean Osasun Sailaren 2021eko azaroaren 9ko barne-txosten bat aipatzea (“COVID-19ak EAEn duen egoerari buruzko informazioa”) eta txosten horrek estekarik ez edukitzea; agian, bat egiten du kexagileak eskatutako informazioarekin, eta oinarritzat erabili zen sailburuaren Agindua onesteko.

IPSEBk kexagilearen eskaera Gardentasun Legearen helburuarekin guztiz justifikatuta zegoela arrazoitzeko erabilitako irizpideetan sakonduz, onargarria dirudi sail horrek bere ekimenez argitaratzea kexagileak eskatutako txostenak, gardentasun aktiboko neurri gisara, botere publikoek hartutako neurriaren proportzionaltasuna justifikatzeko eta, horrela, ageriko gizarte-eztabaida bat sortzen duten egoeretan (osasun publikoa interes orokorreko ondasun juridiko gisa babesteko egoeretan) erabakiak hartzeko prozesua herritarrei hurbiltzeko.

3. Aurrekarietara eta azaldutako gogoetei erreparatuz, kexagileak gaur arte egin duen ibilbidea argigarria da, erakundeei eta denborari dagokienez. Eskaera, erantzun eta ebazpen ugari metatu dira eskudun administrazioan eta organo nahiz erakunde independenteetan (adibidez, IPSEBn eta Arartekoan), eta, erakunde honen iritziz, metaketa horrek argi adierazten du kontraste handia dagoela gardentasunari buruzko araudiaren helburu eta printzipioen eta herritarrek informazio publikoaren sarbiderako eskubidearekin bat etorrira eskatutako datuak lortzeko zailtasunaren artean.

Gogoratu beharra dugu abenduaren [9ko 19/2013 Legeak \(Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak\)](#) honako hau ezartzen duela hitzaurrean: *“Arduradun politikoek jarduna aztertzen denean, herritarrek jakiten dutenean nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak edo zein irizpideren arabera jarduten diren gure erakundeak, orduan soilik esan dezakegu hasi dela botere publikoek gizarte kritikoa*





eta zorrotzari, botere publikoetan parte hartzeko aukera eskatzen duen gizarteari, erantzuteko prozesua”.

Kexagileak hasieratik aztertu nahi izan du gobernuaren lana, eta bere eskaerak, IPSEBren ebazpenen arabera, legearen helburuarekin erabat justifikatuta zeuden, erabakiak nola hartzen diren, funts publikoak nola erabiltzen diren eta erakunde publikoek zer irizpideren arabera jarduten duten jakiteko eta, azken batean, arduradun publikoen ekintza aztergai izateko interes legitimoan oinarritzen baitira.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen [12. artikuluan](#), informazio publikoaren sarbiderako eskubidea zabal definitzen da, eta Auzitegi Gorenak⁶ finkatu eta errepikatutako jurisprudentzia-irizpideak honako hau esaten du: *“la formulación amplia en el reconocimiento y en la regulación legal del derecho de acceso a la información obliga a interpretar de forma estricta, cuando no restrictiva, tanto las limitaciones a ese derecho que se contemplan en el artículo 14.1 de la Ley 19/2013, como las causas de inadmisión de solicitudes de información que aparecen enumeradas en el artículo 18.1 de la misma ley, sin que quepa aceptar limitaciones que supongan un menoscabo injustificado y desproporcionado del derecho de acceso a la información”*; halere, baina, kexagileak benetako oztopolasterketa bat korritu behar izan du eskubidea benetan gauzaten saiatzeko. Esku artean dugun kasuan, IPSEBren ebazpenak aintzat hartu ez izanak eta erakunde honi argudio edo azalpen gehigarririk eman ez izanak adieraz dezake gardentasun-printzipioa ez dela behar bezala aplikatu eta, azken ondorioetara joz, balitekeela kexagilearen eskubidea edukiz hustu izana.

Erakunde honen ustez, informazio publikoaren sarbiderako eskubidea baliatzen ez laguntzeak mesfidantza sor dezake herritarrengan, administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, eta herritarrek erakundeetatik urruntzea eragin; bereziki, prozedura oztopoz eta eragozpenez josita baldin badago eta horrek informazio publikoa eskuratzeko edozein asmo hutsaldu ahal badu.

Gauzak horrela, ez erantzuteak, herritarrek oro har ezagutzen ez dituzten irizpideetan oinarritutako ezezkoak emateak edota, besteak beste, eskatutakoarekin bat egiten ez duen informazioa emateak ez du sustatzen, inondik ere, herritarrek gai publikoetan parte hartzea eta, informazio publikoa benetan edukiz, administrazioaren jarduketak aztertzea eta botere publikoek kontu ematea.

⁶ Auzitegi Gorenaren 2017ko urriaren 16ko epaia (75/2017 errekurtsua) [ECLI:ES:TS:2017:3530](#)
Auzitegi Gorenaren 2022ko ekainaren 2ko epaia (4116/2020 errekurtsua) [ECLI:ES:TS:2017:2272](#)



Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

Gomendioa

1. IPSEBren errekerimenduak eta ebazpenak artatu eta betetzea, herritarrek erakunde publikoen funtzionamenduan duten konfiantza sustatze aldera.
2. Horretarako, egoki deritzogu gardentasun-printzipioa bete dadin espezializatutako administrazio-unitateak sortu eta eratzeari, administrazioa jakiteko eskubidearen inguruan inplikatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisara. Unitateok honako hauek eduki beharko lituzkete:
 - Egokitzen diren datuak eta dokumentuak gardentasun-atarian –etengabe eta gardentasunaren alderdi aktiboarekin bat etorritik– argitaratzeko baliabideak eta mekanismoak. Eremu honetan, gomendatzen dugu gardentasuna eta berrerabilpenaren printzipioa bultzatzea, behin eta berriz eskatzen den informazioa eta garapen ekonomiko eta soziala susta dezaketen datuak argitaratuz, sektore publikoko datuak berrerabiltzearen arloko legeriaren arabera.
 - Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epean eta behar bezala izapidetzeko prozedura eta interpretazio-irizpideak; bereziki, eskaerak ez onartzeko kausak interpretatzeko, hala badagokio mugen ezarpena arazoitzeko, anonimizazio-teknikak edo sarbide partziala aplikatzeko eta informazioa ezagutzeko interes publikoaren eta beste eskubide babesgarri batzuen arteko kaltearen testa edo eskubideen haztapen-judizioa egiteko.

